

Mila Osoro

9 emakume
eigoibartarren
abentura Atlas
mendikatean

Ekainaren 30eko
plenoa

GEHIGARRIA

Zaharrak berri

BERBETAN

Steve Mendive
estatubatuarra

KIROLA

Lagunak Pilota
Txapelketaren
finalak

KULTURA

Aire libreko
zinearen
7. edizioa
martxan

ARREN

1997ko uztailaren 4a
V. urtea - 201. zkia.


Aire libreko zinea



nean hiltzen den zine-ametsa da" Onc arri Zine-kluba

LEKU-EDER ETXEBIZITZAK

LOKAL KOMERTZIALAK eta GARAJEAK *SYMM/*



- Etxebizitza bakarra, ganbararekin
- Etxe osoak kanpora ematen du, eguzkitsua
- Material bikainekin amaitua
- Gasezko berogailua eta ur bero indibiduala
- Ordainketa-era hitzegitekotan

EZ

OP« AgIOERAMIO

Informazioa eta salmenta 20 83 16

ZEZEN-BIDE

AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak



*%10eko deskontua
Gazte Txartelarekin*





MILA OSORO

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile hakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Gaztetxea gora, Gaztetxea behera

Orain dela hamabost bat egun kalean zehar buelta bat ematen nihoan lagun batzuekin (hiru emakume eta gizon bat). Halako batean emakurue batek zera esan zuen: "badakizue gaztetxea zabaldu behar dutela?" Nik ordura arte ez nekien ezer, bai Udalak eta gazteak harremanetan hasiak zeudela baina ez kontua erabakita zegoela. Berri hau entzun nuenean zera esan nuen: "A, ba, pozten naiz! Ordua zen". Baina hau esaten amaitu bezain laster besteen iritzia ez zela bera konturatu nintzen. Batek honela esan zidan: "Ez dakit gaur eguneko gazteek zertarako nahi duten lokal bat gero gaztetxe bihurtzeko. Gu ere gazteak izan gara eta ez dugu horrelakoen beharrik izan". Iritzi hau zuen bakarra ez zela konturatu nintzen berehala, askotan entzun izan baititut horrelakoak.

Nik badakit gu ere gazteak izan ginela eta ez genuela horrelakorik izan, baina hori ez da arrazoa. Gu gazteak ginenean etxe askotan ez zegoen telebistatik, ez telefonorik, ez garbigailurik etab. Hainbeste gauza falta zitzaigun... Hala ere, momentu honetan ez zaigu burutik pasatu ere egiten haiek gabe bizi gaitzkeela.

Gauza hauek aparte lagata eta gauza sakonagoekin hasita, hor daukagu Nagusien Biltokia, lokal zoragarria dena eta oso

leku onean kokatua. Eta horren kontra ez gaude.

Denok, edo gutxienez gehienok, pentsatzen dugu gure nagusiek hori eta gehiago merezi dutela. Asko ez badira joan ere egiten, beste askorentzat egunero irteera egiteko aitzakia da eta lagun artean ondo pasatzeko modua.

Gazteen artean ere berdina izango da. Batzuk ez dira inoiz joango eta besteak ez dira inoiz irtengo.

Gure artean sortutako kezka ez da gure gazteak lokala edukitzeagatik edo ez edukitzeagatik. Hor sortu dena beste kezka bat da, lehengo gaztetxeak irudi kaxkarra edo txarra zuela, eta askok eta askok, nahiz eta oker ibili, gaztetxea eta droga mundua lotu egin izan ditugula.

Bainaitsuak ez bagara gaztetxea orain dela urte batzuk bota zutela ikusi behar dugu. Hura desagertu zen, baina droga mundua desagertu al da? Ez. Zoritxarrez, hor segitzen du lasai-lasai. Horren atzetik daudenei berdin zaie lokal batean, tabernan edo kale erdian saltzea.


Hemendik azaldu nahi dudana zera da: konflikto bati irtenbide bat eman bazaio, ba, berri hori oso gustura hartzen dudala.

Animo gazteak, zuek pozik bizi bazarete, gu ere piska bat poztuko gara.

"konflikto bati Irtenbide bat eman bazaio, ba, berri hori oso gustura hartzen dut"

LABURPENA: AZKENIK GURE HEROIEK LORTU DUTE GIZAK1 ARRUNTEN 1TXURA TEA. PRESTA ZAITEZTE, HERRI HONETAKO BIZILAGUN EZJAKINAK!





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
 17 **74 41 12**
Publizitatea:
 2r **74 37 04**
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTAILEA	Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA	Ainhoa Lodoso
ERREDAKZIO KONTSEILUA	And res Alberdi, Rosa Agirregabiria, Mikel Kortabitarte
KAZETARIAK	Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
PUBLIZITATEA	Miren Moreno
MAKETATZAILEA	Mikel Cornejo
ADMINISTRAZIOA	Amaia Martin M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez
KOLABORATZAILEAK	I rati Agirreazaldegia, Gemma Agirregomezkorta, Itziar Ajuria, Ion Arrieta, Agurtzane Arriola, Edurne Bilbao, M. Angeles Exposito, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Ane Guille, Jon Gurrutxaga, Antton Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi LeOn, Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza, Ongarri Zine Kluba, Pello Rubio, Julian Segundo, Ixidor Solupe, Leire Urkidi, Iban Urizar Unai Villena eta Julen Zabaleta
BANAKETA ARDURADUNA	IMBROI Larrañaga
INPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1.0313/92
ISSN	1133-021X

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura*



fundazioa
 131 fundaciOn

41
DANOBAT
 MAQUINAS HERRAMIENTA

Orbela taldearen bertsioa futbitoko finalari buruz

Orbela taldea ekainaren 15eko futbito finalera ez agertzearen benetako arrazoia zera izan zen: hainbeste data aldaketarekin nazkatuta geundela,

- Futbitoko Ligako finala (lehenengo) maiatzaren 31rako zegoen jarrita (antolatzaileen esanetan ezin zen data hori aldatu). Halere, data aldatu egin zen. Baina ez ziguten 3 edo 4 egun lehenago abisua pasatu, maiatzaren 30ean izan zen aldaketa, finalaren bezpera egunean. Guk 31rako geneukan ospakizuna prestatuta (afaria etab.). Hortaz, ezin izan genuen afaria atzeratu eta gure **poltsikotik** ordaindu behar izan genuen.

- Finalaren bigarren data ekainaren 7a zen eta lehenengo aldiz egin ziguten faena berbera egin ziguten.

- Hirugarren data ekainaren 14a zen. Finala jokatu zela erabat konbentziturik geundenez, hirugarren aldiz egun horretarako prestatu genituen ospakizun guztiak. Ostegunean, ekainak 12, kalean jalcin genuen finala ez zela 14an, 15ean baizik, igandea. Joserrak (txapelketaren antolatzailea) engainatu egin gintuela sentitu genuen (txapelketa guztian ez zen agertu ere egin eta **final**ean bera izan zen protagonista eta txapeladuna). Guk aurrez abisatu genien antolatzaileei (horrela deitzerik badago) bai eta Karkis taldekoei ere (finala jokatu behar zuen beste taldea) ez geneukala finalera agertzeko asmorik. Karkis-eko jokalariek Joserrarekin hitz egingo zutela esan ziguten finalerako behin-behertirako data bat jartzeko. Baina egin zuten gauza bakarra gure taldea txapelketatik deskalifikatzea izan zen. Joserrak ez zuen nahikoa izan gu kanpoan uztearekin. Fiantza modura lagatako diru kopurutik soberan zegoen dirua ere kendu egin zigun.

Eskerrik asko egia azaltzen tizteagatik.

Bereziartua Musikeskolako irakasleel

Etorri zineten egunetik berandu xamar izan arren, gutun honen bitartez gure eskerrak eman nahi dizkizuegu Herri Eskolara etortzeagatik musika entzunaldia eskaintzera. Aldez aurretik esan nahi dugu oso saio erakargarria izan zela bai ikasle eta irakasleentzat eta esperientzia oso baliagarria musika eta musika-tresnak eskolan bertan ikusi eta entzutea.

Gure artean izan dugun harrera onuragarritzat jotzen dugu eta datorren ikasturtean berriro harremanetan egongo garelakoan agur eta oporrak ondo igaro.

Herri Eskola

Orbela taldea

BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik,



6A1112111

• Urasandin bizi den pertsona batek zera jakin nahi du: "Orain dela aste gutxi batzuk arte Urasandiko eta Madalako gurutzebideetan goizean goiz trafikoa zuzentzen egoten zen norbait. Orain ez da inor egoten. Zergatik? Istripuren bat gertatu behar al da agintariak zein inkopetenteak diren ohartzeko?" Udaltzaingora deitu dugu trafikoa nork zuzentzen duen jakiteko. Hara hona sarjentoak erantzun diguna: "Udaltzaingoak hitzar-

men bat dauka egina Ertzantzarekin beraiek Urasandi eta Madalako gurutzebideez arduratzeko eta gu Sigmakoaz eta Txankakuakoaz. Orain arte beti egon izan da norbait bertan eta orain ere horrela dela uste dugu".

Honez gain, Ertzantzara ere deitu dugu eta beraiek esan digutenez, "ez da normala ertzainik ez egotea bertan. Hala ere, parte emango dugu eta ertzainak bidegurutzeeetan egongo dira aurrerantzean".



KEXAK

• Herritar bat etorri zaigu ondoko kexarekin: "Ondiok ere portal askotan zenbaki zaharra eta berrixa elkarren onduan daude. Postariak ere eskutitzak nun laga jakin gabe ibiltzen dia, nahastuta. Ez al dauka asmua Udalak zenbaki zaharrak kentzeko?"

• Emakume batek kexa hau plazaratu nahi du: "Haundiren azken partiduan, jende asko Mintxeta kanpoan jarri zen partidua ikusteko. Beste asko bigarren zatian sartu ziren ordaindu gabe. Elgoibarrerekin denon laguntza beharko du, ez? Ea denok elkartasun gehiago dugun bakoitzak dagokiona ordainduz".

• Herritar batek baino gehiagok deitu digu San Antolineko errotondan belarra oso hazita dagoela eta bisibilitatea oztopatzen duela salatzen. "Autoarekin errotondan sartzerakoan ez dago bisibilitaterik eta egunen batean zerbait gertatuko da. Lotsagania dago eta bada belarra mozteko ordua".



BAI, ESAN?



Mariale Iranzo

Abwixiamaika
Begirale Tadeko
zuzendaria

San Juanetan hartzen dituzte haurrek oporrak. Hauen oporrekin batera hasten dira aisialdi taldeen udako eskaintzak. Aukerak hamaika izaten dira eta ez da batere erraza izaten bat edo bestea aukeratzea. Baina zein da udalekuen helburua? Zertarako antolatzen dira ekintza hauek? Gure zalantzak argitzeko Atxubciamaika Begirale Taldeko zuzendariari, Marije Iranzori deitu diogu.

- Zer da udalekuetan eskaintzen duzuen?

- Bi udaleku mota desberdinu behar ditugu. Batek Elgoibarren eta goizez egiten direnak, eta besteik, udaleku itxiak (Aubixa, Lesaka, Brinkola). Jarduerak antzerakoak dira bietan: jolasak, eskulanak eta irteerak dira nagusi, baina beti ere berrikuntzak sartzen ditugu. Adibidez, iaz estrainez "San Fermín Txiki" eguna ospatu genuen eta arrakasta handia izan zuen. Halere, udaleku itxiak intentsuagoak eta aberatsagoak dira, 5 egun oso elkarrekin pasatzen batituzte.

- Zer lortu nahi duzue egitasmo hauen bidez?


Gure asmo nagusia Elgoibarko haurrek opor egun hauetan ondo pasatzea da, euskara erabiliz ondo pasatzea. Aldi berean, aisialdia lagunartean aberastea, giza-emakume bezala hezitzeko eta gizartearen integrazteko aprobetxatzea da lortu nahi duguna.

Zenbat haurrek ematen du izena eta zein adinetakoak dira?

Hiru urte hauetan zehar, haur kopurua 130-150 ingurukoa izan da. Aurten 150 haurrek eman dute izena. Adinari dagokionean, aurten, eskolaurretik hasi eta LHko 5. mailara bitartekoak dira. Hau da, 4 urtetik 11 urtera arte. Gure asmoa urtero maila bat igotzea da.



*1997ko ekainaren 17an 84 urterekin hil zen
KARMEN BERGARETXE EIZAGIRREren sendiak,
bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



Beciel/tcdzi emaktifiwte

Mcwokoko powajeefan


Pilar Arriola, Lourdes Zubiaurre, Arantza Lartain, Marijose Estibariz, Izaskun Estibariz, Mari Tere Arakistain, Isabel Azkue eta Arrate Zubia elgoibartarrak eta Mertxe Agirre eibartarra izan dira jarraian kontatuko dugun abenturaren protagonistak. Emakutne hauek guztiak Marokon izan dira astebete igarotzen. Mendira joateko asmoarekin abiatu ziren, eta egin ere egin dituzte 4.000 m.tik gorako pare bat mendi. Baina kultura, jende eta paisaia berriak ezagutzeko aukera ere izan dute. Eta bizipen erabat aberasgarriekin itzuli dira. Zazpi egun izan dira, baina oso intentsoak. Sekula ahaztuko ez dituztenak. Eta, egia esan, haien kontuak entzunda, ez da harrizkoa hain oroitzapen ona ekartzea.

Hasierako ideia Alpeetara joatea zen baina, egun batean, Arantza Lartainek Marokora joatea proposatu zuen eta guztiei bikaina iruditu zitzaion. Bi urtez, hilero zenbateko bat jarri, eta ekainaren 22an Madrilen hegazkina hartu zuten Casablanca.

Lehen gaua Marrakech-eko hotel batean pasatu zuten, "errezelo piska batekin joan ginen hemen jende guztiak esaten zigulako 9 emakume izanik kontuz ibiltzeko moroekin. Baina, iritsi bezain pronto, gidek harrera bikaina egin ziguten". Egia esan, elgoibartarrek bazuten abantaila bat. Izan ere, Arantza ia urtero joaten da Marokora eta paraje haiek eta bertako jendea oso ondo ezagutzen ditu. Arantza izan zen, hain zuzen, bidaiaren nondik norakoak zehaztu eta Iotu zituena.

zirelakoan "Viva Esparia!" hasi zen oihukatzen eta elgoibartarrak, hau entzutean, ikurrina atera, lepotik heldu eta trikitiak dantzatzeko eta euskal abestiak kantatzeko hasi ziren. Jaitsiera horren mendi altuaren puntara iritsi izanak sortzen duen satisfazioaz beterik egin zuten, "gainera, paisaia zoragarria da. Frutarbola mordo bat dago toki guztietan: intxaurreak, gereziak, erreka mordo bat dago ur pila batekin...".

Gau hura ere berezia izan zen, "jateko elkartzen ginan kanpinian justu justu kabitzen ginan gu bederatzizok eta gia bixak. Toubkal-etik bajau ginan gabian, afaldu eta gero, beste espediziuetako giak etorri zian gure kanpinera. 19 pertsona geunden kanpin txiki batian, ez ginan ixa sartzen baina kantuan eta dantzan ibili ginan!".



Herri beviel bestera
inlieitzeko garp'ctioa
eeln.

TotiGkal: 4.125 111,

oizean goiz esnatu eta 7etan abiatu zen emakume taldea mendi aldera. Aterpetxera iritsi, akanpatu eta benetako sorpresa izan zuten, "giek pandero haundi moduko batzuk atera eta sua egin zuten. Afaria prestatzeko zirela pentsatu genuen baina, gure sorpresarako, larrua berotu eta musika jotzen hasi ziren. Eta, ia konturatu gabe, kantuan eta dantzan hasi ginen denok!".

Gaueko 10etarako lotan zeuden eta hurrengo egunean 6etarako altxatu ziren. Bapo gosalduta eta martxan. Helburua? Toubkal gaina Iortzea. "Gure bildurra 'mal de altura' deitzen dana zan baina ez genduan euki arazorik. Hiru ordutan Toubkal mendiko gailurrian geunden, pozez saltaka". Gailurrean zegoen frantsez talde bat emakumeak espainolak

M"zi1<, 111211diko

Iehen egunak hain ondo atera izanakin animoz bete zituen elgoibartarrak eta hirugarren egunean ere umorez eta ilusioz jaiki ziren, bigarren mendira igotzeko prest. Pentsatu eta egin. Oraingo honetan 4.088 m.ko altuera duen Raas mendiaren gailurrera iritsi ziren. Honako hau Toubkal baino politagoa iruditu zitzaion guztiei baina jaisterakoan bide desberdina hartu zuten giek eta arazoak izan zituzten, "harririk txiki asko zegoen eta momentu batean elurra ere bai. Irrist egiten genuen elurra oso gogorra zegoelako eta batzuk ipurdiz behera jaitea erabaki zuten. Ia denok bukatu genuen beltzuneekin egun hartan". Aterpetxean bazkaldu eta gero ekin zioten herrirako bidari. Mezik 1.800 m.ko altuera du eta gure lagunek lau ordu eman zituzten haraino oinez iristen.

"Herrian, gia baten familiaren etxean egon ginen". Dutxa beroa hartu, tea gailetekin eta intxaurreak jan eta

lasai-lasai pasa zuten geratzen zitzaien denbora. "Hasieran, herrian sartzera-koan zibilizazioaren eta mendiko herrien arteko desberdintasun nabarmenarekin egin genuen topo. Herri txiki hartan kaleak ez daude asfaltaturik, ez dago argirik, ez telefonorik, alde guztietatik ubideak daude... Baina denetik dute, nekazaritza eta abeltzantzatik bizi dira eta gu baino zoriontsuagoak dira egiaztatu genuen, nahiz eta kanpotik ikusita guk baino gauza gu-txiago dutela ematen duen".


3Cti

kainak 26. Egun berri batek ongi etorria egin zien emakumei. Talo egin berriak gosaldu zituzten eta rندیrantz abiatu ziren. Hurrengo helmuga: urjauziak. Ibilaldi ederra egin zuten. Mendiak ez ezik, Maroko aldeko zenbait herri bisitatzeko aukera ere izan zuten, mendi aldeko herriak: Tizzi Ousem, Azib Tamsolut, Ori Ousse, Aissa, Tizzi Tech eta abar. Inguru, paisaia, ohitura eta jendearekin erabat txundituta zeuden elgoibartarrak. Baina, eguna joan eguna etorri, etxera itzultzeko garaia gero eta hurrerago zegoen. Ekainaren 27a egun berezia izan zen. Batetik, Mezik herrian lo egin behar zuten azken eguna zen eta, bestetik, Arantzaren urtebetetzea. Egunari ukitu berezia eman nahi izan zioten eta afari eder baten bueltan elkartu ziren. "Terrazara atera ginen eta han eseri. Barruan, sukaldean, 6 gizon zeuden guretzat afaria prestatzen. Arantzari Mendaroko txokolatteen eta kandela batzuekin tarta bat pres-

tatu genion eta oparia eman. Arantzak berak ere detailea izan zuen gurekin eta giari ardo botilak ekartzeko eskatu zion. Bertakoek ere afari bikaina eskaini ziguten: zopa, patata frijituak menestrarekin, txanpinoiak, arroz opilak, tortila, arkumea erreta, azenarioa laranja eta kanelarekin, melokotoia eta madaria almi-barrean eta meloia". Baina, sorpresa ez zen afariarekin amaitu. Are gehiago, oraindik ere sekula ahaztuko ez zaien ikuskizuna falta zitzaien. Konturatu zirenerako beste aldean 30 gizon inguru ikusi zituzten haiek ere festa ospatzen eta, halako batean, kanpora ateratzeko eskatu zieten, "sinestezina zen! Herri guztia elkartu zen. Neska ezkongabeak

arropa dotoreekin jantzita eta makilatuak, musika... Dantzara atera gintuzten eta bi orduz izan ginen dantza eta dantza. Festa ahaztezina izan zen!".

Bihotzean pena eta poza, biak zituzten mendiko herri txikia utzi eta Marrakechera joan zirenean. Hiriburuan hainbat bisita egin zituzten, museoak ikusi, "zoko"an gauzak erosi... Eta, astebete igaro eta gero, berriz ere hegazkina hartu eta Euskal Herrira. Sekula ahaztuko ez duten abentura eta bizi-penak ekarri dituzte argazkietan, diario batean eta, batez ere, euren barnean. "Mendia egitera joan ginen, eta jende zoragarriarekin egin genuen topo, ohitura eta bizitza aberasgarriekin".



Beclernizi
eorlokAvneak etc,
Pello, Toblcal
Finevidi oniibov'enn,


Zenbait-

Marrakecheko Hama El Fna plazan Mari Tereri Arakistaini lepotik suge bat zintzilikatu zioten. "Ez zuen hainbeste inpresio egiten, usainik ere ez zeukan baina burua aurpegitik behera ikusi nionean...". - Hasieratik emakume bakoitzari Maroko aldeko izen bat jarri zieten gidek: Jadixa, Nahima, Nasha, Sahida, Subirath, Fatima, Aixa, Radixa..."

Marokoko mendi inguruko herrietan ez dute argirik, telebistarik, telefonorik... Denbora asko pasatzen

dute jolasean, "urteak geunden jolasean ibili gabe eta bidaia honetan denetik egin genuen giek: ezkutaketetan, tiratxinas batekin, majia egin ziguten..."

Janariari, dagokionean ez zuten arazorik izan, "oso ona zen: frutak, barazkiak, makarroiak, entsalada, arkumea, gosaltzeko zerealak, gurina eta mermelada, Nocilla... Euren erara prestatua baina oso ona. Festa egin ziguten egunean arkumea prestatu zuten eta horren ardura etxeko aitona izan zuen, beste inork ezin zuen ikutu arkumea berak izan ezik".



Nola bizi izan duzu bi bahituen askapena?



MARIA ZIGORRAGA

65 urte, etxeoandrea

Pozez, pozez. Bazan ordua, egun asko ein ditxue eta hainbeste eskabide ein ez-kero askatzeko... Gainera bixak batera izan dia, gauza kuriosua, kasualidadia.



ESTEBAN GOMEZ

53 urte, montadorea

Albiste pozgarria izan da, ez dago hori egiteko esku-biderik. Halere, arazoa konpontzeko borondaterik ez dago eta politikoez ez dute ezer egiten.



JUAN MANUEL GOMEZ

45 urte, langabetua

Oso notizia ona izan da, bazez ordua! Argi geratu da toki guztietan asteko albiterik onena izan dela, inolako dudarik gabe.



MIRYAM ALDAZABAL

27 urte, publizista

Notizia inportantia izan da eta ona. Ezin leike irnainau zer pasau dabek bixek, Ortégak batez ere, honen bahiketa oso luzia izan da eta.



PAULA URIARTE

25 urte, langabetua


Asko poztu naiz, komunikabideetan albiste nagusia izan da. Halere, nire ustez gauzek aspaldi egon behar-ko lukete konponduta. Ez dago borondaterik.



JUAN CARLOS GARCIA

34 urte, butaneroa

Notizia ona izan da baina hobea izango litzateke gaztaka amaituko balitz. Azken finean kate bat da eta hauen ostean beste bahiketa bat etor daiteke.



ETXEBERRIA

Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI

zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR

(Biltegia) 74 13 27 (Etxekoa) 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 90817 07

ISPILUARI BEGIRA



NTX(
RabibEARI

JAKIN akademiako
informatika irakaslea

- Zer da komunikazioa?
Dakizuna bestiei azaltzia.
- Zein albiste entzun nahi zenuke?
Mundu osua zoriontsua dala.
- Noren eskutitza jaso nahi zenuke korreo elektronikoz? - Hilda dago baina, Tolkien-ena.
Zein txip da zure ezaugarria? - Ameslaria izatea.
- Internet emakume bat balitz, noren sareetan erori nahi zenuke? - Winona Rider-en sareetan.
- Zein errealitate birtual bizi nahi zenuke?
- Errealitate birtuala jolas bat da eta nik nahixio dot be-
netako errealidadia bizitzia.
- Asmakizunik onena? - Erroberia.
Eta txarrena? Armak.
Pertsona arrazionala ala emozionala zara?
Emozionala.
- Irakurri duzun azken liburua?
"El manifiesto negro"
- Zein herrialdetako parajeetara nabigatu nahi zenuke?
Scheichelles irlletara.
Hitzegin ala entzun? - Hitzegin.
Hiztegitik kenduko zenukeen hitza?
- Erahilketa.
- Zortea ematen dizun zenbakirik?
Ez naiz superstiziosoa.
- Afizio bat? Kirola eta informatika.
- Aspertzen zaituen zerbait?
Intolerantzia.
- Eguraldi txarrak deprimitu egiten al zaitu? - Ez.
- Aurrikusi zure bizitza 20 urte barru.
- Ezkonduta eta seme-alabekin.
- San Ferminetara joateko asmorik?
Sekula ez naiz jun, jende gehixegi egoten da neretzat.



Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. 1T 74 12 56 - (mugikor.) 909 53 23 83



54E^{11,4}

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89

**OIRSO
THERNA**

Olaso industrialdea, 15
Tel: 74 31 85

-EGIINEKO MENORK-
-1011UNBRTETIIN-
Rabak • Olagarroa • Fritoak
-GFIREZ-

Menu ekonomikoak eta
plater konbinatuak

- Meriendak, haurrentzako merien-
dak, afariak, luntmak, banketeak...
- Enkarguak egiteko aurrez deitu

ESKR EZFIZU FIURREKONTUR
INIRFIKO KONPROMEZURIK GRBEI

Ordutegia: fistelehenetik ostiralera 7:00-22:30
Larunbatetan 9:00bk aurrera

• **San Bartolome jaietako kartela hautatzeko lehiaketa**

Udal Kultura Sailak San Bartolome jaietako egitarauko kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Nahi duen guztiak har dezake parte, teknika librea erabiliz. Lan guztiak A2 neurria izango dute eta uztailearen 7an, eguerdiko ordu batean beranduenez aurkeztu beharko dira Kultur Etxean. Lehen saria 50.000 pta.koa da eta sari berezi bat egongo da 15.000 pta.koa. Interesatu guztiak Kultur Etxean eskura ditzakete lehiaketaren oinarriak.

• **Bizkalaria txangoa antolatu du Jubilatuen Etxeak**

Jubilatuen Etxeak Bizkaiara txangoa antolatu du hil honen 23rako, asteazkena. Goizeko 8etan izango da irteera Plaza Handitik eta asmoa Bizkaiko kostaldeari buelta ematea da. Izena emateko epea irekita dago eta nahi duenak Jubilatuen Etxeko zuzendaritzara jo dezake.

• **Erreminta Makinaren Institutua Internet-en**

Erreminta Makinaren Institutuak Internet sarean Web orri bat estreinatu berri du. Orri honetan ikaste-txearen filosofia, funtzionamendua, zerbitzuak eta hezkuntza eskaintza agertzen dira. Internet-eko orri honekin kontaktatzeko zuzenbidea "www.fmh.es." da eta posta elektronikoa, berriz, "fundac03@sarenet.es."

Muguruza etxeko arkuua Udaletxearen ostean kokatuko da

Dagoeneko hasi dira Udaletxe ostean, Giza Eskubideen parkean "Katanan•a" izenez ezagutzen den Muguruza etxeko arkuua kokatzeko lanak. Urte askotan arkuaren zatiak gordeta egon dira, Udalak berriz jartzeko erabakia hartu duen arte. Izan ere, Matilda Muguruza zen Muguruza sendian bizirik geratzen zen bakarra. Bere nahia, hil aurretik arkuua jatorrizko lekuan jartzea zen eta baldintza hau betetzekotan Elgoibarko Udalarari eman

zion arkuua. Emakume hau hil berri da eta bere nahia betetzen ez bada, Udalak Antzuolara itzuli beharko luke arkuua. Hortaz, Udalak Alberto Ibañez eskultoreari errestaurazio lanak agindu dizkio eta San Bartolome bezpera egunerako, Salbearen ostean, arkuua inauguratzea espero dute. Ana Santolaia Kultur zinegotziak esandakoaren arabera, "arkua konpontzeko bi milioi eta erdi beharko dira, arkuari pare bat zati falta baitzaizkio". Berritze lanak burutzeko pare bat hilabete beharko ditu Ibañez eskultoreak. Jatorrizko arkuak armarrria ere bazuen, baina Giza Eskubideen parkean arku hutsa jarriko da.



Arkuua Pedro Muguruza arkitektoa zenaren sendiarena zen. Hainbat urtean Santa Ana kaleko 8 zenbakiko Muguruzatarren etxeko lorategiaren sarreraren zegoen, gaur egun Kutxa dagoen lekuan. XVI. mendeko arku hau 1941. urtean Santa Ana kalean kokatu zuen Pedro Muguruza arkitektoak Antzuolatik ekarri ondoren. Herdan "Katanarm" izenarekin ezagutzen da arkuua, muguruzatarren gaitzizena horixe baitzen.

Hamar emakumek eskola graduatua lortu dute

EPA edo Helduentzako Hezkuntzan parte hartu duten argazkiko emakumeak hiru ikasturteak burutu berri dituzte eta eskola graduatu titulu ofiziala eskuratu dute. Beste edozein ikaslek bezala, hauek ere urte amaierako ikas-bidaia egin dute. Joan den ostiraletik asteartera bitartean Bartzelonan laupabost eguneko egonaldia egin zuten eta ederki pasatu ere bai.

EPA edo Helduen Hezkuntzan 30 bat ikasle egon dira aurren eta zikloa 3 ikasturtez dago osatua. Titulua eskuratu duten emakume hauek gradu-osteko ikasturte bat egiteko asmoa dutela esan digute, "beti

ere taldea osatzen bada". Horregatik, eskolla-garduatu titulua dutenak baina zerbait gehiago ikasi nahi duten pertsona guztiak izena ematera animatu nahi dituzte datorren ikasturtean. Titulua lortu dutenak

hauexek dira: Trini Rey, Ane Goikoetxea, M. Luisa San Martin, M. Luisa Lersundi, Arantxa Zumeta, Marian Beristain, Mila Fulgencio, Conchi Blasco, Martina Morales eta Marta Urbiola.





San Pedroko jaiak, euritan blai

Euriak ez du aurten luzimendurako aukera handirik eskaini San Pedro jaietan. Pasa den asteburuan ospatzekoak ziren ekintzak asko bertan behera utzi behar izan zituzten antolatzaileek euriak ez zuelako atsedetik hartu nahi izan. Igande goizean San Pedro zaindariaren omenez egiten den ohiko prozesioa bertan behera geratu zen. Pilota partiduak ere ez ziren jokatu eguraldiak aukerarik eman ez zuelako. Gainontzeko ekintzak aterpeetan eta ahal izan zuten moduan egin zituzten. San Pedroetan beti egiten omen du euria eta aurtengoa ez da salbuespena izan. Dena den, zenbait ekintza benetan ondo irten zirela esan di-aute. Zapatu gauean bertso-afaria izan zen eta jende ugari hartu zuen parte. Goizaldeko 5:30ak arte luzatu omen zen jaiak. Igande arratsaldean eguzkia atera zen eta idi-dema izan ziren San Pedroko probatokian.



Atxubdamaikarekin udalekuetan

Joan den astelehenean hasi ziren Atxutxiamaika Begirale Taldeak antolatutako udalekuak. Eskolaurreko haurrak, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoak eta Lesakara astebete pasatzera joan zirenen txanda hasi zen egun horretan eta datorren astelehenean, Aubixara doazenek eta Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoek hartuko dute erreleboa. Guztira 150 haur arituko dira opor egun hauetan euskara giroan jolasean. Antolatzaileek esan diguten bezala, ez dute, ez, aspertzeko asti handirik izango.

Egur Arte taderraren erakusketa

Egur Arte Tailerrean diharduten artistek urtean zehar egindako lanei buruzko erakusketa antolatu dute Kultur Etxean. Esmaltea, oleoa, akuarela eta bestelako teknikekin egindako lanak dira ikusgai daudenak. Erakusketa asteartean, hilak 1, ireki zen eta hil honen 13rarte egongo da zabalik. Ordutegia ohikoa da: astegunetan arratsaldeko 7etatik 9ak arte eta asteburuetan 12etatik 2etara bitartean.

San Ferminetaka entzierroak Kultur Etxean ikusgai

Udal Kultur Sailak aurreko urteetan bezala, Kultur Etxeko hitzaldi gelan San Ferminetako entzierroak eskainiko ditu uztailaren 7tik aurrera. Pantaila handian ikusteko aukera izango da goizeko 8etatik aurrera.

Zazpidd Irratiaren urteko balorazioa

Zazpiki Irratiak 96-97 denboraldiko emisio amaiera dela eta, urteko balorazioa egin du. "Urtea, orokorrean, positiboa" izan dela diote, "nahiz eta irratsaioen kopurua jaitsi, kalitatea hobetu egin da". Zazpikikoek Udalaren portaera salatzen dute "gurekiko eta beste talde batzuekiko izan duten jarrerarengatik, kontuan hartu behar baita irratsaioak egiteko erraztasunak gutxi izan direla, lokala ez dela bat ere aproposa, diru iturririk ez dugula,...". Irratiak irailan ekingo dio berriz bilerak egiteari datorren udazkeneko programazioa prestatzeko.

Bestetik, Zazpiki irratiak kamisetak salgai jarri ditu 1.200 eta 1.000 pta.tan. Oiz-Mendi eta Tuxri-beltz tabernetan.



Gastronomia azoka

Joan den larunbat eta domeka goizean Gastronomia azoka izan zen Plaza Handian. Eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu asteburu osoan baina egia esan, kopuru aldetik saltokiak ere gutxi xamar zeuden. Dena den, kurioso mordoska hurreratu zen Plaza Handira Asturias, Nafarroa eta inguruetako jakiak eta edariak dastatu eta erosteko asmoz. Salmentak behintzat, ez ziren, ez, kaxkarrak izan.

Kontu Orokorrak

Joan den astelehenean izan zen plenoan 1996ko abenduaren 3 lko Udal kontuetako zenbait gairen likidazioa onartu zen. Udaletxe-ari dagokionean, 1996ko abenduaren 31 ko azken kontuen arabera, 22.500.572 pta.ko rernanentea geratu. zen. San Lazaro egoitzaren kasuan, berriz, rernanentea 7.368.862 pta.koa da eta Kirol Patronatukoa, 591.318 pta.koa.

Kirol iharduerentzat dirulaguntzak

Ekainaren 30ean onartu zuen Udal Kirol Patronatuak herriko elkarteei dirulaguntzak emateko araudia. Aipatu araudia lehenik eta behin herriko elkarteei aurkeztu zitzairen eta hauen onespena jaso eta gero onartu zen Patronatuko Zuzendaritza Batzordean. Honen bidez eskolarteko kirolen laguntzaile gisa elkarteek duten papera indartu egingo da eta elkarteek antolatzen dituzten iharduerak, lehiaketak, erakusketak eta autofinanziaketak bultzatu eta suspertu nahi dira. Araudiak hiru eranskin ditu elkarten iharduera arruntak, aparteko iharduerak eta elkarteek antolatzen dituzten iharduerak antolatzeko laguntzak zehazteko.

Bideo-bijilantziaren aurkako mozioa aurkeztu zuen plenoan EB-IUk

Jabi Agirre HBko zinegotziaren kargu-uztea onartu zen

*Astelehenean, hilak 30, plenoa izan zen Udaletxean. Bertan, alderdi politiko desberdinek hainbat gai-ri buruz eztabaidatu zuten. Besteak beste, azken urteetan HBko zinegotzia izan den Jabi Agirre-
ren kargu uztea onartu zen eta EB-IUko ordezkaria den Juan Ignacio Ausinek kaleetan bideo-kamarak jartzearen kontrako mozioa aurkeztu zuen.*



EB-IUko zinegotziaren mozioa atzera bota zen.

pleno motza izan zen, ordubete eskas. Aurreko pleno-ko akten onarpena aho batez onartu eta gero gai zerrendako puntu desberdinen inguruko bozketari ekin zioten, aunez alderdi bakoitzak bere jarreraren zergatia azalduz.

Arriaga 1

Arriaga 1 saileko arauen aldaketen behin-behineko onarpenari buruz hitzegin zuten pleno aretoan bildutakoek. Besteak beste, lur sail horretan kokatzen den Danobat enpresak zabaltzeko asmoa duela esan zen. Puntu honen aurrean, HBko zinegotzia den Jabi Agirrek galdera bat luzatu zion alkateari depuradorearen kokapenaren in-

guruan, "badirudi depuradora Arriagan kokatzeko aukera dagoela. Gure ustez, kokapena zehaztu arte ez da komeni inolako araurik onartzea". Giller-mo Garatek adierazi zenez, "momentuz ez dago ezer zehaztuta depuradorearen inguruan. Gainera, Danobatek ez du erre-kara zabaltzeko asmorik, beste aldera baizik, beraz, gaiek ez dute zerikusirik". Arriaga 1 saileko arauen aldaketa onartu egin zen.

EB-IUren mozioa

EB-IU alderdiak mozioa aurkeztu zuen plenoan. Juan Carlos Ausinen hitzetan, "bideo-kamarak kalean jartzea grabatzeko pertsonen askatasun eta

intimitate eskubideen aurkako eraso da eta ez dut uste neurri egokia denik biztanleonek seguritatea bermatzeko eta istiluak baretzeko. Horretarako beste neurri batzuk hartu beharko lituzke Gobernuak eta horien artean autodeterminazioaren eta giza eskubideen errespetuaren gaiak daude. EAJ-PNVren izenean Isaak Loiolak hitzegin zuen eta bere hitzetan, "oraindik onartu gabe dagoen legea da eta kontrolatu baino, seguritate publikoa erregulatzeko pentsatua dago". EB-IUren mozioa atzera bota zen EAJ-PNV, PSE eta PPrent botuekin. IU-EB eta HBk alde bozkatu zuten eta EA abstenitu egin zen.

POL-POL
ABERNA
 San Bartalome, 19 - Tel. 74 08 74 - ELGOIBAR

willi ANCHUSTEGUI s.a
ZERAMIKAK

Erakusketa eta butegoa:
 Antonio Arrillaga, 6-8
 behea
 83 Postakutxa
 Tel. 74 33 44 - 74 06 92
 Fax 74 37 11

Biltegia:
 Arregitorre, 10 - 14 behea
 Tel. 74 20 38 - 74 23 71
 20870 - ELGOIBAR
 Gipuzkoa



JOSE LEON

--cianszman osira« exa ribeiro exa

Mihari.O.ro ardnak liirohatu hoharra eign"

Bitza osoa pasa du alde bate-tik bestera. Jose Le6ni gaztaro-an lan kontuengatik bidaiatzea tokatu zitzaion. 16 urte zituela Ciudad Realen jaiotako gizon hau Madrilera joan zen eta hortik aurrera, bueltaka ibili zen Elgoibarrera iritsi arte. Duela pare bat urte jubilatu zen eta ordutik bestelako bi-daiak egin ditu, gustu-gustu-koak. Plazerreko bidaiak.

- Madril, Guadalajara, Melilla...

- Toki horiek denak ezagutu ni-tuen oso gazte nintzela. Nire he-rritik atera behar izan nuen lan bi-la eta 16 urte nituela iritsi nintzen Madrilera, Lavapies auzoa oso on-do ezagutzen dut. Guadalajaran ere bizi izan nintzen eta Melillan soldadutza egin nuenez, hura ere ondotxo ezagutzen dut.

- Halere, bene-benetako bi-dalak, jubilatu zinenean hasi zenituen.

- Hala da, bai. Bistarekin arazo-ak ditut eta aurre-jubilazioa eman zi-daten orain dela bi urte inguru. Lehenago ere gus-tatu izango litzai-dake bidaiatzea baina... Halere, ez naiz damutzen eta ahal dudan beste aprobe txatzen ari gara emaztea eta biok.

Badakit, ordea, Donostia izugarri gustatzen zaizula.

- Zoragarria da. Ez dago parekorik! Egia esatekotan, Laredoko hondar-tza munduko poli-tena dela uste dut, baina Donostiakoa ere pare-parean geratzen **zai**o. Gainera, niretzat lagunekin atera eta txikiteoan ibiltzea, eguneko momen-turik onenetarikoak da. Euskal Herria ez nuke aldatuko.

- Bartzelona ez zitzaizun gehie-gi gustatu.

- Lehenengo aldiz joan nintze-nean, Euskal Herria bezelakorik ez zegoela esan nuen eta ez nintzela gehiago itzuliko. Baina, gauzak nola diren, alaba katalan batekin ezkondu zen eta Bartzelonan bizi da eta semea ere orain gutxi ber-tara joan zait bizitzera. Beraz, sar-ri joaten gara haiek bisitatu eta egun batzuk pasatzera.

- Orain dela gutxi Galizian izan zarete.

- Bai, Jubilatuen Etxeak antola-tu zuen bidaia. Oso gustura ibili ginen taldean, eta hotelak dema-sak ziren! Horrelakorik ez genuen izan eztei-bidaian. Ezkondu eta la-nera joan beharra izan nuen. Baina orain ari gara orduan egin ezin nituenak berreskuratu eta disfrutatzen.

- Gaez parrandarik egiten al zenuten?

- Galizian ez, musean partida bat eta ohera. Egunez asko ibil-tzen ginen eta gauean nekatuta, ohera berehala. Hori bai, Galizian, Vigoko portuko ostrak bizirik eta albariño eta ribeiro ardoak dasta-tu gabe ez ginen bueltatu.

- Zein toki ezagutu nahi zenu-ke?

- Orain litekeena da Jubilatuen Etxetik Cordoba, Sevilla eta inguru horietara bidaiaren bat antolatzea eta gustura joango nintzateke. Jendea eta giroa dagoen bitarte-an, gustura.

- Maletak egin eta desegiteaz ez al zara nekatzen?

- Zortea dut horretan. Emazte zoragarria dut eta bera ardura-tzen da gauza horietaz.



"Alpargatia galdua ere, lokatz artian segitxu naban karrera amaitxu arte"

San Lorentzo baserriko Basueta baserrian jaio zen Agustin Garitagoitia duela 72 urte. Txikia zenetik saltaka egitea izan du afizio eta horretan aritzen zen lagunekin jolasean, ea nor iristen zen lehenago puntu jakin batera. Profesionala ez da sekula izan baina Donostiako "Gimnastica Uliako" partaide izan zen eta hainbat lehiaketa irabazi izan zituen, horien artean bigarren mailako txapelketa. Agustin bere garaiko onenetarikoaren artean zegoen.

Afizio handia zenuen saltaka aritzeko.

- Bai, asko gustatzen jatan. Mutil koskorra nitzala ere, edozein jolas baino hobia zan antxitxika

1Mutiko izateari laga eta gartetan ere jarraitu zenuen.

- Bai. Lelengo Elgoibarren hasi nitzan baina hemen ez zaon gauza haundirik eitxerik eta orduan "Gimnastica Uliako"n Escudero zauan. Berak eraman nindun hara eta astian behin juten nitzan, bari-xaku arratsaldian trena hartuta.


- Asteburu osoa Donostian?

- Ez, bari-xaku arratsaldian trenian jun, afaldu eta lotara. Gero, zapatu goizian beti egoten zan karrera bat herriren batean eta hara juten ginan. Korrika ein eta bueltan berriz ere, etxera.

- irabazi ere irabazten zenituen, ez?

- Bai, nere epokan ona izan nitzan. Faborito asko egoten zian baina gero karrerak nik irabazten nitzuan. Inportantiena, bigarren mailako kanpeonatu irabazi nabanian. Trofeua eman ziguten. Ostantzian ez trofeo, ez medailarik. Gure epokan korbatak eta holakotxiak ematen zitxuen erregalo.

- Zenbat kitometro egiten zenituen saltaka?



- Ba danetik, 7, 10... Asko jota 13 km. izaten zian. Ni onena behetik gorakuan izaten nitzan. Pauso motza baina azkarra nakan. 2. mailako kanpeonatu eta nabanian ere, ibilbidian eskailera asko zauan eta hortxe ibiltzen nitzan gustura.

- Halere, entrenamenduak Elgoibarren egiten zenituen.

- Bai. Sigman egon nitzan lanian eta astian behin edo birritxan entrenatzera juten nitzan. Gainera, gure baserrira oinez hiru ordu laurdan eitxen nitxun kaletik, batzuetan soruetatik lastua hartu eta kargauta ere jun bihar izaten gendun. Baina, etxera ailegau, zapatilak jantzi eta Karakaten gora saltaka juten nitzan, Atxolinera ailega u eta bajatzeko. Beste batzuetan Eibar edo Alzola aldera karreteraz... Ahal zana.

- Soldadutzara joan zinen arte.

- Bai, Zaragozan tokau jatan, Jakan. Han ere noizian behin ka-

rrerak organizatzen zitxuen eta parte hartzen naban. Behin komandantiak bi hilabete libre eman zian irabazi ein nabalako. Bentajia neretzat!

Anekdotak bitxiak izango dituzu.

Danetik dao. Akordatzen naiz zela behin Lasarteko karrera batian ez zapatila eta ez bestelakorik, alpagatekin korrika eitxen genduan. Eta karrera hasi eta bi kilometrorra alpagata bat galdu naban. Baina, amaitxu arte segidu naban, hanka bat libre eta bestian alpagatia, lokatz artian..

- Gaur egun lagata duzu.

- Bai, belauneko desgastiakin hasi nitzan eta laga biharra euki naban. Bestela gustauko jatan jarraitzia, beti euki izan dot afiziva. Oin ere ikusten dot Karakatera itxen dan igoeria saltaka eta gustauko jatan egotia baina... Damurik ez dakat, gustura ibili nitzan gazte denboran saltaka.

JAKITU\E\ AHUTIK

landu egin behar da

Memoria erregistratu, eutsi eta gogoratzeko ahalmena da. Batzutan memoria txarra daukagula esan ohi dugu baina gizakia ez da memoria onarekin edo txarrarekin jaiotzen. Are gehiago, gure memoria hobetzen ikas dezakegu eta hori adin guztietan egin daiteke. Urteetan aurrera egiteak ez du memoria gutxitzea esan nahi. Gainera, ahaztea beharrezkoa da. Kontua, gogoratu nahi duguna aukeratu eta gogoratzea da. Horrez gain, antsietateak, ardurek eta bestelakoek gora-beherak sor ditzakete memorian.

Jarraian, memoria lantzeko zenbait ariketa aipatuko ditugu. Horiek eginez, gauzez hobeto gogoratzea lortuko dugu poliki-poliki.

- Egunero zerbait irakurtzea komeni da: egunkariak, aldizkariak, eleberriak...
- Idaztea ere oso ondo etor-

tzen da: eskutitzak, liburu batetik hartutako testuak, errezetak... Honekin, gainera, gauzak adierazteko ahalmena garatzen da.

- Marrazketaren bidez irudimena garatzen da eta ideiak, pentsamenduak eta bestelakoak irudietan isladatzea onuragarria da.
- Denborapasen bidez buruko funtzioak lantzen dira: arreta, konzentrazioa, hizkuntza, logika,
- Mahaiko jolasen bidez, berriz, lagunartean ondo pasatzeko aukera daukagu beste ahalmen batzuk landuz.
- TBko zenbait lehiaketan bidez ere landu daiteke memoria beste gauza batzuekin batera, Kili-Kolo, esate baterako.
- Ahal den guztietan hitzaldi eta mahaingurueta joatea komeni da, gai desberdinei buruzko informazioa jaso eta lantzeko.

• Gai desberdinei buruz hitzegiten den tertulia taldeetan ere parte hartzea oso ona da.

• Noizean behin, bakoitzak gustuko duen afizioaren bitartez gogoratzeko ariketak egin ditzake:

- Ikusi ditugun pelikuletao izenburuak eta aktoreen izenak gogoratu.
- Kirolean, ikusi berri ditugun azken partiduetako emaitzak.

Irakurtzen ditugun liburuen autore eta pertsonaien izenak.

- Telebistan ikusi ditugun programetako gaiak, izenburuak...



Nati Antolin Bizkohcoa

OSAGAIK: 2 arraultza, limoizko yogur 1, royal 1, yogurraren neurriko olio edalontzi 1, 2 neurri azukre, 3 neurri irin.

PRESTAKETA

Arraultzak harrotu royalarekin batera. Zenbat eta gehiago harrotu, hobeto aterako da bizkotxo. Arraultzei olio, azukrea eta yogurra gehitu. Azkenik, irina bota. Dendena ondo-ondo eragin. Aluminiozko paperez estaitako ontzi batean, olio ondo igurtzita, nahasketa bota eta labera sartu. Su txikian eduki ondo egin dagoen arte. Oso inportantea da su txikian egitea, bizkotxo poliki-poliki harrotzen joan dadin. Bizkotxo barrua txokolatez, bainilaz, nataz edo mermeladaz bete daiteke. Nor bere gustuko apainketak egin.

ERREZETIZ

PPRP7ETIA P.P 12F 7ET A · ERREZETIA

REGGAE
ROCK
 Egoitzaren
UZTAILA 11 2
 1411-1111
 7:30 etan

BREGA
 Reggae irlandarra
ARAWAK
FUNDIZIYUE
EHUN KILO

REGGAE
ROCK
 KONTZERTUA
 Elgoibarren
UZTAILAK 12
 Larunbata
 MADALAKO PARKEAN
 7:30 etan

BREGA
 Reggae irlandarra
ARAWAK
FUNDIZIYUE
EHUN KILO

Estatubatuarra da, Kaliforniakoa. Steve Mendivek 38 urte dituzt eta bere aitona eta arnora bizkaitarrak ziren. Elgoibarren izan da orain gutxi, familia bisitatu eta euskara klase partikularrak jasotzen. Orain, berriz, Zornotzako barnetegi batean dago. Duela 20 urte etorri zen estreinakoz Euskal Herrira, Oñatira eta han landu zuen etxean ikasitako euskara apurra. fendeak esukaldun itxura duen amerikarra dela esaten du. Stevek, aldiz, "biak, euskaldun eta amerikar izaerak ditut" aitortzen du. Umorerik ez zaio falta eta primeran moldatzen da euskaraz, bertoko asko eta asko baino hobeto.

STEVE MENDIVE

"Bat-batean euskara ikasteko beharra sentitu nuen"

—**Gurasoek ba al zekiten euskaraz?**

Aitak bazekien baina ni oso gaztea nintzela hil zen. Aita eta aitxixaren bidez euskara ikasten saiatu nintzen txikia nintzela baina oso gutxi. 1977an Oñatira joan nintzen euskara behar bezala ikastera. EEBBetako ikasle talde bat joan ginen, batzuek gaztelera ikasi nahi zuten eta beste batzuek euskara.

—**EEBBetan ez al zenuen ikasteko aukerarik?**

- Bazegoen metodo bat baina oso sinplea zen. Gaur egun desberdina da, aukera handia dago eta Unibertsitatean bertan doktorautza euskarari buruz egin dezakezu.

—**Euskaraz gain beste zein hizkuntza dakizu?**

- Nire ama-hizkuntza ingeleza da, bigarrena euskara eta, gutxiago, haina gaztelera ere moldatzen naiz. Ha-

lere, gaztelera irakasle latinoamerikanoekin ikasi nuen eta azentoa eta zenbait hitz eta esamolde desberdinak dira.

—**Zergatik euskara ikasteko beharra?**

- Gaztetan amerikanoa nintzen erabat, ez nuen beste ezer sentitzen. Gero, bat-batean euskara ikasteko beharra sentitu nuen eta duela 20 urte pasa eman nuen lehen pausoa Oñatira joatean.

—**Oso ondo hitzegiten duzu. EEBBetan euskaraz hitzegiteko aukerarik ba al duzu?**

- Bai, sarri gainera. Adiskide euskaldunak ditut eta haiekin beti euskaraz hitzegiten dut. Euskal Etxe-etako bazkidea ere banaiz, lehendakaria ere izan nintzen, eta haietan beti euskaraz hitzegiten dugu, euskal kultura lantzen, dantza, ohi-

turak, musika, gastronomia... Eta lanean ere saiatzen naiz.

—**Kontaiguzu hori.**

- Ikasketaz abokatua naiz baina lanbidez irakaslea. Institutuko beste irakasle batzuk ere euskaldunak dira eta batzuetan euskaraz hitzegiten dugu eta ikasle batzuekin gauza bera. EEBB-etan orokorrean ez dakite Euskal Herria non dagoen ere baina nire inguruan bai, euskaldun asko gaude eta. Fama ona daukagu.

—**Ez al zinen hemen geratuko bizitzen?**

- Euskal Herria eta euskaldunak asko gustatzen zaizkit, jende irekia da eta bizitza kalean egiten da, tabernetan.. **EEBBetan** oso itxiak gara. Desberdina da. Pentsatu izan dut hemen bizitzea baina nire bizitza han dago. Orain urte batzuk Indautxuko institutu batean egon nintzen ingeles klaseak ematen urtebetez. **MoMentlZ gustura nago** EEBB-etan bizitzen eta noizean behin Euskal Herrira etorri eta bisita egiten.

—**Zer moduzko esperientzia Elgoibarren?**

- Oso ona. Harrituta geratu naiz, nik uste nuen baino askoz euskara gehiago entzuten da kalean. Oñatin izan nintzenean Franeo hil berria zen eta orindik ere euskaraz hitzegiteko beldurra igartzen zen kalean. Gauzak asko aldatu dira urte hauetan. Sarri etorri izan naiz Euskal Herrira eta benetan esan dezaket egoera asko hobetu dela euskarari dagokionean. Inpresio ona eramango dut eta **BARREN** aldizkariko harpidetza, nire euskara lantzen jarraitzeko.

gESTEER ESANA

"Euskara eta Euskal Herria maite dituen euskal amerikarra dugu Steve"

DEÑE ZABALO, euskara irakaslea



•••• **JAIOTAKOAK** ••••

- Maddi Mendivil Artetxe (Ekainak 10)
- Miren Lahoz Idarraga (Ekainak 14)
- Mikel Arriola Gurrutxaga (Ekainak 17)
- Laura Larrañaga Casquero (Ekainak 19)
- Jon Arakistain Krez (Ekainak 25)

cit ••• **EZKONTZAK** •••

- Jose Luis Luengo Gonzalez eta Maria Dolores Otero Gallego (Ekainak 1)
- Unai Zulaika eta Olatz Fuente (Ekainak 28)
- Carlos Moreno Andre's eta Maria del Coro Gonzalez Conde (Ekainak 29)

•••• **HILDAKOAK** ••••

- Jose Antonio Alzibar Uribarren, 67 urte (Ekainak 2)
- Vicenta Azkue Alonso, 99 urte (Ekainak 10)
- Jose Antonio Alzibar Uribarren, 67 urte (Ekainak 2)
- M. Angeles Gabilondo Isasi, 73 urte (Ekainak 14)
- Mari Carmen Bergaretxe Izagirre, 84 urte (ekainak 17)
- Eduardo Pe'rez Saiz, 35 urte (ekainak 18)
- Aitor Larrea Arriola, 27 urte (Ekainak 23)
- Pedro Marcelino Borreguero Fernandez, 92 urte (Ekainak 27)

Norberto Arriola Mugerza

(1903-1994)



- Elgoibarren, Galbuso baserrian jaio zen 1903ko ekainaren 6an. 10 seme-alaben artetik laugarrena zen.
- Lehenengo mutila zenez, baserrirako izan zen bera.
- Gaztetako ikasketak Marianistetan egin zituen. Gurasoen nahia musika ikasketak egitea zenez, Silvestre Ansola txistulariarengana joan zen, eta gero Eibarrera, Nemesio Urrutia soinujolearengana. Ordurako nonbait, 14 urterako hasia zen soinu-jotzen. Eztei, erromeria etab.etan, han eta hemen hasi zen soinuarekin.
- Lau txapelketatan parte hartu zuen, bigarren eta hirugarren sariak atera zituelarik.
- 1926an soldaduzka Santanderren egin zuen. Etxera itzultzean laister ezkondu zen Francisea Alberdi Mujika azkoitiarrarekin, 1926ko azaroaren 25ean, hain zuzen. Hiru seme izan zituzten.
- Unerik gogorrenak eta beltzenak 1936ko gerra denboran pasatu zituen zalantzarik gabe.
- Gerra ondorengo urteetan nekazaritzan aritu zen latz eta horregatik berehala laga zion soinua jotzeari. Bere zaletasuna ehiza zuen.
- 1994ko irailaren 6an hil zen Galbuson, 91 urte zituela.

Juanito Gorostiza



7410/` /a/9" &a (1Q/9`a`

1997ko ekainaren 23an hil zen 27 urte zituela.

*Aitor, guk zaitugu maite.
Ezin gara aldendu nahita ere.
Hain ona izan zara, ezin esan ere.
Zeruan elkar ikusiko dugu Aitor,
laster arte,*

Zure familiakoak

ESKERRIKASKO GUZTIOI



Ikorta taberna zenean aterata dago **Maria Luisa Milikuak** laga digun erretratu hau. 1962. urtean, ihauterien aitzakian elkartu ziren lagun artean argazkiko elgoibartar hauek. Mahai bueltan eserita agertzen dire-

nak, ezkerretik eskumara, hauexek dira:

Pauli Astigarraga, Juani San Martin, Maria Luisa Milikua, Tomasa San Martin, Agurne Konde (t), Patxi Zubiaurre (mexikarrez jantzitakoa), Benita Agirre, Jose Osoro (t), Jose Elkorro-Irribere (t), Nikaxi Andonegi, Txomin Osoro, Cruz Gurrutxaga (t) eta Jose Gurrutxaga.



4/1014

4airv-u^{ji}

*1997ko ekainaren 23an hil zen
27 urte zituela.*

Nire bizitzako onena izan zara.

Nire bizitzako onena zara.

Nire bizitzako onena izango zara.

Maite

41%

"Pretenporadia Eibarren eingo det"



Jabier Gurrutxaga

- **Adina:** 22
- **Diruak kaltea ala mesedea egiten dio futbolari?** Ekipo haundixetan kaltia, negozio hutsa da
- **Zerk kentzen dizu loa? Futbolak z Nora zoaz oporretan?** Igual Jaka aldera eskapatxo bat eingo dot lagunekin

— **Eibarrera omen zoaz.** Bai, as-telehenenian aitxak berba ein zaban Eibarkuekin, Jose Maria Arrizabalagarekin eta akordio batera heldu ginan. Firtxia bi urterako izango dan zehaztu gabe dago baina pretenporadia eurokin eingo dot. Gero entrenadoriak ikusiko dau han segitxuko doten edo Elgoibarrera etorri zeditxuta.

— **Nola ikusten duzu zeure burua 2A mailan?** - Bigarren mailan ez dot sekula jokatu eta egixa esan ez dakit ze nibel dauan baina bueno, pretenporadan probauko det eta ahal dana ein.

— **Nola ikusten duzu Eibar taldea?** - Bigarren mailan presupuesto bajuena daukan kluba da eta jokalarixen fitxak ere horren araberakuak diaz. Nere gastuetarako eukiko det, jun-etorrixetarako etab. Gainera, Eibarko taldea aurten oso ondo ibili da. Lelengo mailara igotzeko aukerak euki ditxu azken partidura arte hamengo jokalarixak eukitxa. Horrek talde potentia dala esan nahi du.

— **Bertako jokalarlak edukitzea inportantea al da?** - Bai, baina ekipua errefortzatzia nahi danian beharrezkua izaten da kanpoko jendia ekartzia. Bertako jendia hartzia ondo dao gu bezelako jokalarixentzat ze hola irtenbide bat ematen digute.

— **Zaragozakoak ere zure atzetik ibili omen dira.** - Bai. Klubak ekipa bat daka lelengo mailan eta beste bat 2B

mailan. Oin dala hiru aste-edo deitxu ziaten eta plana bigarren mailan jokatzia zan. Bueltak ematen hasi ginan Zaragozara jun ala ez jun eta hurrengo astian eibartarrak etorri zian euren eskeintzakin. Zaragoza klub inportantia da. Futbolari batekt irtenbide aldetik gehiako espero dezake holako klub batetik baina ondiok estudixatzen nauanez eta Zaragozara jutiak bizitza osua aldatzia ekarriko zianez, Eibarren geratzia erabaki gendun.

— **Familiaren laguntza izan duzu erabakia hartzerakoan?** - Bai, aitxa ibili da batekin eta bestia berba eitxen baina danon artian pentsau gendun zer ein leiken eta zer ez. Igual hasieran diruari begiratzen diozu batez ere, baina gurasuek beste aspekto batzuk ikusten laguntzen dizue.

— **Pozik zoaz Eibarrera?** Pozik bai baina Elgoibarren ere oso gustora eon naiz. Taldiakin oso ondo, klubakin ere bai. Entrenatzailiak ere oso gustora eon naiz. Gainera datorren urtian berak jarraitxuko dabala entzun dot eta ekipuantzat ona izango dala uste dot.

— **Gaur Eibarren, bihar Errealean ala Athletic-en agian?** - Hori amets eitxia izango zan baina egixa esan hixetako edozeinetara oso gustura jungo nitzan.

— **Ikasketak ala futbola, zeinek du lehentasuna?** - Eibarren eotiak denbora gehixo kenduko dia baina injenieritza ikasketak bukatzia da nere asmua.

K | ROL ALBISTEAK

• Tenis pistaren alogera

Udal Patronatuak aditzera eman nahi du aurrerantzean tenis pista alokatzeko Kiroldegira zuzendu beharko dela eta ez orain arte bezala, Mintxetara. Tenis pista alokatu nahi duenak, beraz, 74 44 15 zenbakira dei dezake.

• Club Deportivoak antolatutako afaria

Zapatuan, hilak 5, Club Deportivoak afaria egingo du Kiroldegian gaueko 9:etan. Klubeko zuzendaritzakoak, jokalariek eta zaletu guztiak afarira gonbidatuta daude. Presidenteak esan digunez, 250 bat lagun elkartzea espero dute. Bestetik, ostegun gauean Gabi jatetxeak, Ibar-Txiki edari banatzaileak eta Zeleta barazkiak eskainitako afaria izan zuten klubekoek. Gabi jatetxeak 2. mailara igoz gero, afaria doan ernateko konpromezua hartu zuen.

Ander Goikoetxea. eskubaloiko Espainiako selelaiorako hautatua

Ander Goikoetxea 16 urteko eskubaloiko jokalaria Espainiako selekzioarekin jokatzeke hautatu dute. Dagoeneko selekzioarekin entrenatzen hasia da eta joan den igandetik Leioan daude kontzentratuta. Ander Goikoetxeak Elgoibar Eskubaloi Elkarteko kadeeten taldean jokatzen du eta dudarik ez dago etorkizun polita duela kirol honetan.



Partidu politak ikusi ziren Lagunak Txapelketako finaletan

Joan den zapatu goizean, Ikastolako frontoian jokatu ziren Lagunak Pilota Eskolako antolatutako txapelketaren azken partidua. Lehendabizi, benjaminetan, Asier Astarloak eta Asier Larreak jokatu zuten buruz buruko partidua. Azken honek 18 eta 15 irabazi zuen. Segidan Haritz Iriondo eta Iker Azpiazuk alebiren finala jokatu zuten



20 pilotarik hartu dute parte Lagunak Pilota Txapelketan.

eta Iriondo nagusitu zen 18 Aipatzekoa da Lizartzako utzi zituelarik. Partidu polita 13. Infantilen arteko bikotea neska batek eta lita izan zen baina azkene-norgehiagokan, Asier Ube- mutil batek osatzen zutela, an lizartzarrak nagusitu zira 18 tantu lortu zituen esku pilotan gauza oso bi- ren, 18 eta 15.

eta Aitor Iduetak 9. txia. Elgoibartarrak gogor Banakako txapelketan Azken partidua binaka- hasi baziren ere, lizartza- 20 pilotari aritu dira guzti-koa izan zen. Lizartzako rrak laster aurreratu ziren ra eta binakako kategorian, Nagore eta Altuna eta El- markagailuan, Nagore nes- Azpeitia, Zaldibia, Lizar- goibarko Bergara eta Mu- katoak jotzen zituen pilota- tza eta Elgoibarko pilota- rua aurrez aurre aritu ziren. kadak ikusleak aho zabalik riek hartu dute parte.

Martin Garagarzak irabazi du La Unin-eko bazkideentzako Arrantza Txapelketa

1^{er} Mehako itsasadarrean jokatu zen pasa Honen atzetik Agustin Garagarza sailkatu be rri den igande goizean La UniOn el- zen eta hirugarren postuan Asier Ajuriage- karteke bazkideentzako Arrantza Txapel- rra gaztea. Azken hau infantil mailako iraketa. Elkartekoek esan bezaia, euria zeia- bazlea ere izan zen.

eta, bazkide gutxi animatu zen Arrantza Txapelketan parte hartzera. Bost lagun baino ez ziren lehian ari tu. O rokorre an arrain asko baina taina eta pisu eska- sekoak harrapatu zituzten. Alerik handiena Martin Gara- garzak hartu zuen 450. gr.ko arraina izan zen. Sailkapen nagusian Martin Gara- garza nagusitu zen.



La UnMn-eko ordezkaria Asier Ajuriagerra infantilen irabazlearekin eta Martin Garagarzarekin, azken hau txapelketaren irabazlea.



E' lit A; 1 T` Z A K'

Futbol 7 Txapelketa

Malas Hierbas 7- Paotxa 1
Nothingan Prisa 0- Itxistan 2
Lagun Toki 8- Ere Bai 0
Karkis 8- Berrogei Duro 1
P.S.K. 4 - Ikus Optika 0
F. Astigarraga 3- La Inkisizion 4
La Colina 9- Tomas **V** diez mas 2
Pednisko 4- Aide Globun 1
Aupa Tu - 0 Spartak Pitxote 2
Askasibar 9 - I. de Varedum 3
Maser -5 Udaberri 0
La Orden Frantzis. 4- Debanda 3
Beti Sutan 4- Europurki 6
Waka 0 - Pobokaaki
B. La Amistad 2- Excalibur 3
Lojantxiris 5 - Multi. Uzuri 2
Ford Lerun 0- P.G.B. 9
Akatu 1- Zokoa C. 3
Arkupe 3- Tsunami's Team 2
Nothingam Prisa 1- Lagun Toki 10
Sex Symbols 0- Vultur Gryphus 6
Ibdstan 1- Berrogei Duro 4
Thiribindu 0 - Xare 9
Karkis 3- Ere Bai 1
Paotxa 1- Peña Alaitz 5
P.S.K. 0- La Inkisizion 6
Malas Hlertas 3 - Wino 1
Ikus Optika 3- Tomas **V** diez mas 5

\ G I E ' N 1 1 1 A

Futbol 7 Txapelketa, Mintxetan

Larunbata, 5
9:00 Wino - Peña Alaitz
La Colina - La Inkisizion
10:00 Nothingan Prisa - Berrogei Duro
Ikus Optika - F. Astigarraga
11:00 Lagun Toki - Karkis
S. Pitxote - Udaberri
12:00 Ere Bai - Itxistan
Maser - Aide Globun
13:00 P.S.K. - Tomas **V** diez mas
Aupa Tu - Pedrusko
Igandea, 0
9:00 Excalibur - Beti Sutan
Potxokoak - Lojantxiris
10:00 La o. Frantziskana - M. Iñuri
Waka - Debanda
11:00 Ford Lerun - Aubixa
Akatu - Sex Symbols
12:00 Askasibar - P.G.B.
Vultur Gryphus - Arkupe
13:00 Anorthosis - Europurki
Tsunami's Team - Zokoa
Asteartea, 8
18:00 Tdribindu - Malas Hierbas
Ere Bai - Berrogei Duro
19:00 Wino - Paotxa
Lagun Toki - Itxistan
20:00 Peña Alaitz - Xare
P.S.K. - La Colina
21:00 Nothingan Prisa - Karkis
F. Astigarraga - Tomas **V** diez mas
22:00 Aubixa - Askasibar
P.G.B. - I. De Varedum
Osieguna, 10
18:00 La Inkisizion - Ikus Optika
Europurki - B. La Amistad
19:00 Maser - Aupa Tu
Ford Lerun - I. de Varedum
20:00 S. Pitxote - Pedrusko
Anorthosis - Beti Sutan
21:00 Aide Globun - Udaberri
Aubixa - P.G.B.

Sigmako Pilota Txapelketa

Asteartea, 8
20:00 Garate/Gerrika -
Armario - Agirregomezkorta
Loiola/Lazarobeitla -
Txurruka - Lelaristi

Gaur, hilak 4, izango da aire libreko zinearen lehen emanaldia

Zubian gortina bat jarriko dute haizerik ez sartzeko

21.1

Australian Cave?

Australia burura datorrigunean arrunean kanguroak begizatzen ditugu, baina dirudienez norbaitek zorrigaitzeko hazi batzuk landatu ondoren, denboraren poderioz, hazi horiek fruitu gordina eman zuten. Urte haietan, "Birthday party" deiturtko talde batean, Nick Cave izeneko musikari gazte batek bere lehen pasuak eman zituen. Gazte honek bere barne sentimenduen aurrekariak utzi zizkigun talde honen eskutik, baina bere begirada barnerakoi horrek zorrigaitzeko haziekin topo egin zue-nean lortu zuen mirespen handiena. Horrela jaio zen "Nick Cave and The Bad Seeds", musikalki Australia lurralde aberatsa zela aditzera emanez. Talde honek dotnu intimista eta garratzen erabiltzen duen Cave-ren kronika beitzak, "The Lullaby" lorm ondoren, tza-sentimenduen jatorrizko "The First Love" pertsonaia izan da beraien erpin hanWna (sinfonismoan) orri gabe. noski). Poesiaz beterritako diskak oparitu dizkigu "Crooner" honek: kolahorazio ugariz aparte. (P.S. Harvey, Barry Adamson, Kylie Minogue...) **batzuk** aiatzeanen "From here to eternity". "Let love in", "Munier Ballads".... aipatuko genituzke.

CAVE & THE BAD SEEDS du azken diskoak "Call". Bertan hasierako diskoetan aurki daitezkeen zapore mingo se-ro abesiek garraztasun hori galdu dute, erromantikoagoak izatera heldu arte. Beraz, ez gaude Nick Cave-ren diska onenaren aurrean, baina Cave-ren zigilu ahazteezina mires daiteke... oraindik behintzat. Ez aizaigu ba, saltoka hasiko?

Iban Urizar eta Julen II

"El quinto elemento", Bruce Willis aktore ezagunaren azken pelikularekin emango dio hasiera Ongarri Zine Klubak udako aire libreko zineari. Gaur, hilak 4, gaueko 22:30etan emango dute aipatutako filmea.

Uztail eta abuztuaren zehar hainbat pelikula emango dituzte Ongarrikoek aire libreko zine saioetan. Urtero bezala, uztaileko asteburuetan eta abuztuko azken asteburuan izango dira emanaldiak. Aurtengoa aire libreko zinearen zazpigarren edizioa da. Orain arte bezala, pelikula guztiak gaueko 22:30etan hasiko dira eta proiektzio egunak ostiral, lagunbat, jai bezperak eta jaiegunak izango dira. Pelikula guztien arteak bakarrik izango da euskaraz. Uztailearen 12an emango da, eta beraz "Wallace and Gromit" izeneko marrazki bizidunen filmea da.

Haize-korrontearen kontrako gortina

Aire libreko zinearen proiektioetan jendearen kexa nagusia ibai aldetik sartzeko zen haize korronea izaten zen. Duela urte pare bat Ongarrikoak arazo honentzako konponbide bat topatzearekin zioren. Soluzio bakarrik Txankakua zubiaren sarreran, frontoia eta zubiaren hasieran dagoen etxearen artean, alderik alde gortina handi bat jarri zen. Aurten lehen aldiz gortina jarriko dute. Irtenbide honekin Plaza Handian sortzen den haize korronearen arazoa saihestuko den esperantza dute antolatzaileek. Eta bide batez, haize hotza ez ezik, argia sartzeko ere ebitatuko dute.



Frontoian pantaila jartzea lan neketsua izaten da.

Uko pelikulak

"EL QUINTO ELEMENTO"

"DATE EN L.A."

• Ostirala 11

"WALLACE AND GROMIT"

"EL DUELO"

• Ostirala 18

• Larunbata, 19

"VOLANDO LIBRE"

• Ostirala 25

"EL TIGRE"

• Larunbata, 26

"TORMENTA BLANCA"

• Asteartea 29

"UN PUEBLO LLAMADO DANTE'S PEAK"

• Osteguna, 31

"MISSION IMPOSIBLE"



0014 1414

San Juanak, San Pedroak, San Ferminak, Santiagoak, Santa Anak, Madalenak, San Lorentzoak, San Rokeak eta San Bartolomeak. Ekainean hasi eta irailera bitartean herriz herri ibili eta turismo desberdina egingo dute gazte askok. Izan ere, inguruetako parajeak gehiegitxo ezagutzen ez ditugun arren, taberna eta bestelako zuloetako musikak entzunaz jendearekin harremanak izan eta Euskal Herriko txokoetako ohituren berri jasotzeko aukera izaten da.

Kontua da, adin batetik aurrera motxila eta kanpina hartuta, kotxez, autobusez, taxiz edo ahal den bezala, jende gaztearen planik onena jairik jai ibil-

tzea izaten dela udako oporretan. Aste hau berezia da. Izan ere, bihar hasiko dira Euskadiko jairik ezagunenak, San Ferminak. Gehienok gure-geure jaiak izango balira bezala bizi ditugu. Nor ez da behin edo behin goizean goiz esnatu telebistaz entzierroa ikusteko? Eta nork ez du zuzenean jarraitu txupinazoa, edo milaka lagun barre eta poz algarak ehundaka txanpain botilek eztanda egiten duten bitartean? Horiek aitzakia hartuta, herriko bi gazte ekarri ditugu gure artera. Bata egon izan da Iruñeako festetan. Besteak ezagutu bai, baina sekula ez du aukerarik izan Nafarroako hiriburura zapi gorria lepoan zintzilakuta joateko. Batak eta besteak euren arrazoiak azaldu dizkigute. Hona hemen.

Iloo 4t zait4 odutta /414 lelitsissetaki

Azer 6toto

"Iaz jun nitzan lelengo aldiz lagunekin. Beti euki dot kuriosidadia juteko ze esaten zien San Ferminak ziala '10 maximo'. Autobusian jun ginan, eguna eta gaba pasau eta hurrengo egunian berriz Elgoibarrera. Nere ustetan jende gehixegi egoten da,

piskat agobiantia ein jatan eta azkenian kantzauta amaitxu naban. Ixa denbora osua txosnetan ibili ginan eta ez genduan ikusi ez entzierroa, ez beste ezer. Ondo dao ezautzia baina ez dakitx berriz bueltauko nitzan, piskat txaskua hartu naban. Neretzat hemen inguruko beste edozein jai askoz hobiak diaz".



Ateittek hossikluez

"Ez, inoiz. Beti esaten deu hurrengo urtian, hurrengo urtian... Aurten, agian... Kuriosidadia badakat, juerga haundixa izango dala imaginatzen dot. Hori bai, igual hainbeste jende


egongo da agobiantia ere ingo dala baina ezagutzeko gogua dakat, hain jai famosuak izanda eta Iruña hain gertu dauanez... Egun baterako jungo nitzan, egunez dauana ikusi eta gabian juergia eitzeko".



TXURI BELTZ

79.1berla

San Franzisko 38



OIERK1

IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

(943) 20 35 15 • ABERIAK (943) 20 35 15

Bista Eder, 11 (sotanoa) © 20600 EIBAR

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 461111
 Txanda hartzeko 743354
 Planning-a 742950
 Alkoholiko Anonimoak.. 740385
 D.Y.A (anbulantzia) 464622
 Gurutze Gorria 743864
 Mendaroko Ospitalea 756264
 Odoi Emailak 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 744366
 Udal Kirol Patronatua 744415
 Kultura Zerbitzua 742158
 Mendaroko Udala 756100
 Ongizate zerbitzua 741008
 Udaletxea 741050
 Udaltzaingoa 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 741626
 Kiroldegia 744415
 Kontsumo Bulegoa .. 743088
 Libu rutegia 743525
 Musika Eskola 742145
 Mintxeta 744315
 Parrokia 740842
 Postetxea 741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza .. 740296
 Zaharren Biltokia... 740526

IKASTETKEAK

Haur Eskola 74 21 41
 Herri Eskola 74 08 79
 I. M. H 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 74 02 67
 Ezenarro (Meka) 74 44 80
 Ikastola 74 44 41
 L.H.I. 74 44 80
 Pilar Ikastetxea 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 74 41 12
 El Diario Vasco 74 40 73
 El Correo Español ... 74 10 82
 Egin 10 84 21
 Zazpiki irratia 74 34 74

4 ostirala

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA
 "El quinto elemento"
 Plaza Handian
 Antolatzailea: ongarri
 Zine Kluba

5 larunbata

10:00 HERRIKO PLATER TIRAKETA
 Arrateko tiro zelaian
 Antolatzailea: La Unir5n
 Elkartea

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA
 "2.013: Rescate en L.A."
 Plaza Handian
 Antolatzailea: ongarri
 Zine Kluba

igandea

8:30 MENDI TRABESIA
 Irteera Plaza Handitik

16:30 DANTZALDIA GELATXOREKIN
 Plaza Handian

7 astelehena

9:30 UDALEKU IREKIAK
 Lehen Hezkuntzako 3-4 mailak
 Plaza Handian

10:30 UDALEKUAK AUBIXAN
 Lehen Hezkuntzako 3-4 mailak
 Plaza Handian
 Antolatzailea:
 AtxutxiamaiKa Begirale Taldea

9 asteazkena

10:30 SAN FERMIN TXIKI EGUNA
 Poni eta zezentxoekin
 Plaza Handian
 Antolatzailea:
 AtxutxiamaiKa Begirale Taldea

11 ostirala

16:30 ODOL ATERALDIA
 P.M. Urruzuno 8an

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA
 "Space Jam"
 Plaza Handian
 Antolatzailea: ongarri
 Zine Kluba

11
• R•111 111 ■ 111 • • •

aire libreko ZINEA



Zuzendaria: Luc Besson
Antzezleak: Bruce Willis, Gary Oldman, M. Jovovich

El quinto elemento (Franzia 1997)

2.259. urtea. New York. Gizakien salbazioa bi pertsonen esku dago: genetikoki birsortutako "The girl" izeneko neska bat eta K. Dallas izeneko gizon baten esku. Zang, negozio-gizon maltzur bat da eta bera izango da etsai nagusia. Zientzia fikziozko superproduzio europar honek efektu berezi ikusgarriak ditu eta elementu erromandko, mitologiko eta erlijiosoak nahasten dira.



• San Fermin Txiki Eguna

Datorren asteazkenean, hilak 9, San Fermin jaiak direla-eta, Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika Begirale Taldeak San Fennin Txiki eguna ospatuko du herri hurrekin. Bigarren urtez jarraian antolatzen du Begirale Taldeak jai hau. Goizeko 10:30etatik aurrera, San Fermin zaindaria agurtu ondoren, poni eta zentxoak askatuko dituzte Plaza Handian. Herriko haur guztiak izango dute parte hartzeko aukera eta Atxutxiamaika Begirale Taldekoak izango dira haurrak zaintzeaz arduratuko direnak.

• Datorren ostiralean odol ateraldia

Datorren ostiralean, hilak 11, odol ateraldia izango da arratsaldeko 6:30etatik 8:30etara bitartean Odol Emateen egoitzan.

• Arrazolatik Atxartera mendi trahesia

Morkaikok Arrazolatik Atxartera bitarteko mendi trahesia antolatu du iganderako, hilak 6, eta ez Aratz ingurura, joan den astean iragarri genuen bezala. Alternatiba ezberdinak egongo dira eta Anbotora igotzea ez da beharrezkoa izango. Irteera goizeko 8:30etan izango da Plaza Handitik.

• Udaleku irekiak

Datorren astelehena, hilak 7, Atxutxiamaika Begirale taldeak antolatutako Udaleku irekiak hasiko dira Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako hurrentzat. Astelehenean, goizeko 9:30etan Plaza Handian izena eman duten haur guztiak elkartuko dira. Bestetik, egun berean, goizeko 10:30etan Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako haurrak Plaza Handian elkartuko dira Aubixan astebete pasatzeko asmoz.

• Plater tiraketa herritarrentzat

La UniOn Elkarteak 1. Erregularitasun Plater Tiraketa antolatu du herritarrentzat Arrateko tiro zelaian. Lehen saioa bihar, hilak 5, izango da goizeko 10etatik ordubatak arte. Bigarren tiraldia hurrengo zapatuan jokatuko da toki berean arratsaldeko 4etatik 7etara bitartean. Finalak, berriz, hilaren 19an izango dira arratsaldeko 4etatik 7ak arte.

HONEKIN GATOZHI

ITALIA

HOTELAK - 3 eta 4*

8 egun **93.900 pta.**

PARIS, RHIN eta HERBEHEREAK

HOTELAK - 2, 3 eta 4*

8 egun **85.900 pta.**

INGALATERRA eta ESKOZIA

HOTELAK - 3 eta 4*

8 egun **115.900 pta.**

BUDAPEST eta PRAGA

HOTELAK - 3 eta 4*

8 egun **89.900 pta.**

PRAGA, VIENA eta BUDAPEST

HOTELAK - 3 eta 4*

8 egun **93.900 pta.**

OSLO, FIORDOAK eta GLAZIARRAK

HOTELAK - 3 eta 4*

8 egun **138.500 pta.**

ESKANDINABIA

HOTELAK - 3 eta 4*

10 egun **159.900 pta.**

ISTANBUL eta KAPADOZIA

HOTELAK - 3 eta 4*

8 egun **86.900 pta.**

MOSKU ETA SAN PETERSBURGO

HOTELAK - 4*

7/8 egun **119.800 pta.**

EL CAIRO eta NILOAN ZEHar KRUZEROA

I. MAILAKO eta

ERDI-LUXUZKO HOTELAK

8 egun **139.400 pta.**

GURE DETAILAK:

-BIDAIA ASEGURUA

-EZKONGAIENTZAKO

OPARIA

-3. ADINEKOENTZAKO

BEHERAPENAK

-HIRUKO GELETAN

BEHERAPENAK

-UMEENTZAKO BEREZIAK

-SALNEURRI

GARANTIZATUAK

-IRTEERA

GARANTIZATUAK

BILBAO -EXPRESSEN

ESKEINTZA BAT DA

Dudarik gabe, hemendik aurrera, zatoz gure bulegora:

ABIL

VIAJES

3IL3RO EXPRESS

Foruen Plaza, 3 Elgoibar

Tel: 74 39 12

1 J1 1

FARMAZIAK

Egunez	Gauetz
5	Etxeberría* Etxeberría
6	Etxeberría" Etxeberría
7	Bidasolo Bidasolo
8	Etxeberría Anduaga
9	Etxeberría Zabaleta
10	Etxeberría Etxeberría

*(eguerdiko 2ak arte)

ANDUAGA: Mendarozabal, 1 Garagarza. Tel: 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

8 igandea **Eizagirre**

R ■ IR ■ REIRR ■

111 ■ 11 ■ RI ■ 111 111 ■ 1111 ■

aire libreko
ZINEA



Zuzendaria: John Carpenter
Antzezleak: K. Russell, Stacy Keach, Steve Buscemi, Valeria Golino

2.013 Rescate en L.A.

(USA 1996)

Los Angeles, 2.013 urtea. Lurrikara ikaragarri batek Los Angeles astintzen du eta irla bihurtzen da. Bertan talde iraultzaile batek hartzen du boterea. Egundean amerikar presidentearen alabak tren militar oso arrikutsu bat eskuratzen du mundua suntsitzeko asmoarekin. Iraultzaileen buruak arma hori eskuratzeko eta mundua arriskuan egongo da.

Salerosketak

SALDU

- Kitarra elektrikoa eta anplia salgai prezio onean. 100 watioko Marshall Valvestatea da. Egoera onean le 74 19 26 (Asier)
- MIDI furgoneta berria salgai. Kanpinerako aproposa. Bizikletak eramateko dauka. Toldoa aukeran. fr 74 27 48 (Arratsaldez)
- Kanpin handia, familiarra salgai. 15 74 27 48 (7etatik aurrera)
- GAME BOY-rako Master Karateka eta Tetris salgai. Prezio interesgarria. «ar 74 39 39
- Seat Malaga 1S GL BI-41 57 AW salgai.a 19 51 04 (Mareel)
- Yamaha XJ-900 motorra salgai (13.000 km.). Egoera ezin hobean eta merke.0 75 62 39/75 61 80 (20:00etatik aurrera)
- Merkatu plazan liburutegi-kioa traspasatzen dut. Tr 74 25 17 (Amaia)
- Aukera interesgarria: Benecci Superligera eskopeta saltzen da. Oso ondo zainduta dago, Bi urteko garantia eta estrak. 1r 74 03 92 (Dani)
- Peugeot SRD salgai. Merkea, Honda 500 VFR motorra (berria). 1r 907 84 40 54 (Unai)
- Poliesterrezko Yainaha itsasuntzia salgai. 4 zaldiko motorra. 4,50ko luzera eta 1,50ko manga. .cr 19 13 07
- Mendaroko Irrintzi liburudenda traspasatzen dut. 1r 75 61 53

Partikularrak

- Fisika eta matematika klase partikularrak ematen ditut. 15 74 13 34 (Andoni)
- Frantses klaseak ematen ditut. Ikastaro trinkoa uztailean. 1r 74 04 59
- LOGSE batxilergoko marrazketa eta arkitektura eta injinerutza has-teko oinarriko marrazketa eman-go ditut uztailean. fr 74 03 74
- Euskarazko eta Lehen Hezkuntzako partikularrak ematen dira. Talde txikiak. re 74 09 72 (Garikoitz)
- Matematika, kontabilitatea, praktika administratiboak, koston kontabilitatea eta ahari buruzko klase partikularrak ematen ditut Maila guztiak eta talde mugatuak. Esperientzia dut. 1r 74 21 65 (Javi)

Etxebizitzak

- Elgoibarren pisua edo gela bat alokatu nahi dut. -re 74 40 40 (M. Eugenia)
- Maiatzetik irailera bitartean etxea alokatzen dut Jakan. re 74 15 22
- Alcoceber-en apartamentua alokatzen da uztailean eta irailan. u 74 22 08
- Torrevejian apartamentua alokatzen dut. (Ekaina eta iraila). 1r 74 24 50
- Bungalow-a alokatzen dut Santa Polan udan, uztailean izan ezik. -11 74 12 13 (Carmen, gaeuz)
- Jakan apartamentua alokatzen da. (Membrilleras-en) 73 74 20 31
- Benidorm-en apartamentua alogeran. Hondartzako lehen ilaran. ir 74 20 31
- Pisua salgai Pedro Muguruzan. w 74 04 56 (Maria)
- Etxea saltzen dut Santa Ana 10-4an. a• 75 62 34

Bestelakoak

- Gizonezko erloju hat dago Ikastolan jasotzeko. Ekainaren 2lean Mintxetan jokatu zen partiduan ahaztu zuen norbaitek. •er 74 44 41
- Austrinko familia batek Salzburge>rako au-pair bat behar du, Urtebeterako, abuztuaren 15etik aurrera, Erretratua eta aurkezpen esku-titza bidali honako helbidera: "Fran Litka, Weidenstrasse 3A, Birkensiedlung. 5020 Salzburg (Austria)
- Bi inutil hartuko nituzke apopilo. Erropen garbiketa barne. 1r 74 09 44

Garajeak

- Trenbide kalean garajea salgai. Oso handia da, errulota edo bi kotxe sartzeko beste. Sobrepisoa dauka. a. 74 01 33
- Urasandin garaje itxia saltzen da. 1r 74 08 63
- Garaje itxia salgai Arregitorren. ir 75 51 77
- Urasandin garajea dut alokatzen. Marraduna. n• 74 31 07
- Garajea salgai Juan Mttgerza kalean.a 74 12 04 (20:00-22:(10)
- Garaje itxi bat saltzen da Arregitorren. a 74 12 53
- Garaje hat salgai Lekit-Ederreko 4. solairuan. (9etatik 13etara) .1r 74 32 04

Lana

*ESKAERM

- Etxea garbitzeko emakume bat eskaintzen da. 1r 74 21 88
- 26 urteko neska tabernan lan egingo luke. Esperientziarekin. -zr 75 20 69 (Kristina)
- Neska etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. tr 909 41 73 52
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egingo eta umeak zaintzeko. Esperientziaduna eta euskararekin. 1r 19 21 28 (Asun, asteburuetan)
- Neska eskaintzen da umeak zaindu edo bestelako lanak egingo. rr 74 18 68
- Ileapaintzaile titulodun neska eskaintzen da umeak zaintzeko. a 74 22 91 (Cristina)
- Neska batek haurrak zaindu eta etxekolanak egingo lituzke. Euskalduna eta esperientziarekin. a• 74 31 88 (Amaia. Goizez)

♦ESKAITZA4

- San Bartolomeetan bokatak egingo eta abuztuaren taberna garbitzeko pertsona bat behar da. is 74 37 71
- Gazte bat behar da tabernan lan egingo. Euskaraz jakitea beharrezkoa. 1r 74 28 97

Agurrak



- Zorionak "Rubio"! Ezin zenuen egun aproposagorik aukeratu mundura etortzeko. Ondo zenezkien zuk zer zegoen uztailean

7an. Trabesa: ezetz 26 orduko jurgua egin San Ferminetan! Ir hazten haduzu egun bateko permissoa daukazu. A, ez ahaztu luntxa! Amaia, Gi-Bi, Lillo eta BARRENeKo haren-a.



- Libratuko zinetela uste zenuten? Ja, ja. ja! Osasun kontuetan profesionala izanik biak dagoeneko nahiko "vampirizatuak" zaudetela nabari da. Flalere, mingaina eta eskuak kontuz erabili! Olga eta Amagoia, zorionak hiei kuadrilako guztien partez!



- Zorionak Xabier Gili hilaren 2an 11 urte bete zituelako. Gurasoen partez.



- Super zorionak Ana Castrori oste-gunean, hilak 10 here urte-guna delako. Familia guztiaren partez.




- Iosu Sololuzeri zorionak ekainaren 28an urteak bete zituelako. Jon, Aitor, Kepa eta Beriari-en partez.



- Zorionak uztailearen San 3 urte beteko dituen Lore Mendizabali, bere senideen partez.



- Uztailearen San 12 urte beteko dituen Zairarentzat mila kilo zorion Gema, Leire, Veronica eta familia osoaren partez.



- Zorionak Gorane eta egun zoriontsua pasatu. Zure familiarren partez.



- Egunarekin nahastuta ibili bagara ere, zorionak Andrew eta urte askotarako. Ondo pasa Italian. gondolero, eta datorren urtean ere gustura

jango ditugu pastak. BARRENeKo lankideak.

- Zorionak Beatrizi oraindik Gotzonekin gustatuta dagoelako, Adrianen partez.

4 Zorionak Dafen Leori ekainaren 27an urteak hete zituelako. Hamar tirakada belarritik. Andrea eta Nerearen partez.

Larrañaga autoeskola



Aprobelatu
udaldia

Idi gh11"6 h.
ate ratze kc
hol

Izena ematerakoan

7/01 Oeko

beherapena Gazte Txartelarekin

Santa Ana, 11 Tel: 7410 11 ELGOIBAR.

ZELETA BARAZITAK

*Kalitatezko
produktuak
ortutik makaira
zuzenean*



*NEKAZARITZA
TRADIZIONALA ETA
BABESTUA*

Betiko dendetan aurkituko dituzu gure landareak:

ta/s) /Cap-b"a6&,"ia

ratfrfiyAffa

//t1tXo

Vtiro ij

md,ruat

41dazaniaoFey.aaa



ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa ELGOIBAR



GARAY



**HARATEGIA
URDATEGIA**

San Frantzisko, 9 Tel: 74 13 92



ETXEAN EGINDAKO **BEREZI**TASUN BERRIAK

**SOLOMOA BERAKATZ
ZAPOREAREKIN**

**BARWUST ENTSALADA
MUTUR ENTSALADA**

SOLOMOA BELAR FINEKIN

TXAKA ENTSALADA

10 SOLOMO ADOBATUA

PIKILODUN SALTXTXAK

TXAHAL "RAGOUT"A

SALTXTXA GORRIAK

TXAHAL MARINADA

"TURINGIA" SALTXTXAK

TXAHAL "GOULASCH"A

"TURKEY" SALTXTXAK (OILASKOAREKIN)

ETXEAN EGINDAKO JAKIAK

- Kroketak • Piper beteak • Tripakiak tomatetan •
- Mingain gisatua • Pintxo morunoak •
- San Jakoboak • Indloilar "rollito"ak • Albondigak
- Haragi gisatua • Etab...